

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 437/2024 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien deialdiari

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailari atxikitako Arlo Estrategikoen Zuzendaritzak 2024ko ekitaldiko ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietarako deia egiten du, lurraldeko hainbat eragilek planetarekiko errespetuzko oparotasunerako duten konpromisoa eta hartarako egiten duten lana ikusarazteko eta aitortzeko, eta lurralde gisa aurrera egiteko ahaleginak bateratzeko, inor atzean utzi gabe.

Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzaren lantaldeak, zeinak GJHko 9. helburua bultzatzen baitu, erakundeek jasangarriagoak izateko duten erronka lortzen laguntzeko ekin-tzetan lan egiten du, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliz eta teknologia eta prozesu garbiak eta ingurumenaren aldetik arrazoizkoak ezartzea sustatuz.

Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzaren bultzatzailea den eta lherberen eta Euskaliten laguntza duen Arabako Foru Aldundiak ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokiak aintzatesteko sarietarako deia egiten du.

Prozesu eta produktu berriak diseinatzeko prozesuan ingurumen aldagaiak kontuan hartzeak, aldagai ekonomikoak eta kalitate aldagaiak kontuan hartzeaz gain, prozesu eta produktu horien ingurumen errendimendua hobetzen du haien bizi zikloan zehar.

Sari horien bidez, Diputatu Nagusiaren Sailak bi gauza egin nahi ditu: batetik, jendaurrean aitortu ekimen berritzaile horiek Arabako gizartearen ongizateari egiten dioten ekarpena eta, bestetik, katalizatzaile jardun, era horretako proiektuak abian jar daitezen sustatzeko.

Nahitaezko txostenak ikusita.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan eging-dako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

ERABAKIA

Lehenengoa. Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 872/2022 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea, hartan sartuz ebazpen honen I. eranskin gisa erantsitako edukia.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 10.000,00 euro esleitu ditzala Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldiko gastu aurrekontuko " 02100. G/920021/47900026 ODS9 sariak" aurrekontu partidaren kontura.

Hirugarrena. Onespena ematea ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien deialdiari.

Laugarrena. Onespena ematea deialdia arautuko duten oinarriei. II. eranskinean daude.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bata nola bestea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Arlo Estrategikoen zuzendaria

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

I.ERANSKINA - ANEXO I

Foru sektore publikoaren 2023-2025
aldirako diru- laguntzen plan estrategikoa
aldatzeko fitxaFicha de modificación del plan estratégico
de subvenciones 2023-2025 del sector
público foral

Funtzio- arloa: 0978

Área funcional: 0978

Dirulaguntza lerroa:
GJH9sariakLínea de Subvención:
Premios ODS9Ardatz estrategikoa:
Giza garapena eta gizarte kohesioaEje estratégico:
Desarrollo Humano y Cohesión SocialSaila:
Diputatu NagusiaDepartamento:
Diputado GeneralAurrekontu partida:
02100 G/920021/47900026 GJH9 SariakPartida presupuestaria
02100 G/920021/47900026 Premios ODS9:

2023	2024
0,00	10.000,00

2025	Guztira/total
0,00	10.000,00

Dirulaguntzaren xedea:

Arabako Lurralde Historikoko hainbat eragilek planeta errespetatzen duen oparotasunarengatik egiten dituzten ekimen eta proiektu berritzaileak saritzea eta publikoki aitortzea, prozesu eta produktu industrialaren diseinu- prozesuko ingurumen- aldagaiak kontuan hartuz, aldagai ekonomikoez eta kalitate-aldagaiez gain.

Objeto de subvención:

Recompensar y reconocer públicamente iniciativas y proyectos innovadores que diferentes agentes en el Territorio Histórico de Álava hacen por y para una prosperidad respetuosa con el planeta, considerando las variables ambientales en el proceso de diseño de procesos y productos industriales, además de las variables económicas y de calidad.

Onuraduna:

Nortasun juridikoa duten eta egoitza edo helbide soziala Arabako Lurralde Historikoan duten erakundeak. Ezin dute parte hartu sektore publikoko erakundeek.

Persona beneficiaria:

Entidades con personalidad jurídica, y con residencia o domicilio social o sede abierta en el Territorio Histórico de Álava. Quedan excluidas las entidades pertenecientes al sector público.

Emateko prozedura:
Norgehiagokako prozeduraProcedimiento de concesión:
Concurrencia competitiva

Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak:

Líneas básicas de la subvención:

Baterako finantzaketa:

Cofinanciación:

Jarraipen prozedura eta adierazleak:

Régimen de seguimiento e indicadores:

II. ERANSKINA

EKONOMIA ZIRKULARREKO, INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIKO, ENERGIA GARBIAK EZARTZEKO ETA EKODISEINUKO JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailari atxikitako Arlo Estrategikoen Zuzendaritzak 2024ko ekitaldiko ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietarako deia egiten du, teknologia eta prozesu industrial garbiak eta ingurumenaren aldetik arrazionalak erabiliz jasangarriagoak izateko lan egiten duten erakundeei laguntzeko.

Sari horien bidez, Diputatu Nagusiaren Sailak bi gauza egin nahi ditu: batetik, jendaurrean aitortu ekimen berritzaile horiek Arabako gizartearen ongizaterako egiten duten ekarpena eta, bestetik, katalizatzaile jardun, era horretako proiektuak abian jar daitezen sustatzeko.

Arabako Foru Aldundiak, hartara, ingurumenarekiko duen konpromisoa berretsi du, eta sari hauetarako deia egin du Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren bidez, enpresek eta beste erakunde batzuek iraunkorrakoak izateko egiten dituzten ahaleginak aitortzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa. Xedea

Sarien helburua da publikoki saritzea eta aitortzea Arabako Lurralde Historikoko lurraldeko hainbat eragilek planetarekiko errespetuzko oparotasunerako egiten dituzten ekimen eta proiektu berritzaileak, lurralde gisa aurrera egiteko ahaleginak bateratzeko, inor atzean utzi gabe.

Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzaren lantaldeak, zeinak GJHko 9. helburua bultzatzen baitu, enpresek eta bestelako erakundeei jasangarriagoak izateko duten erronka lortzen laguntzeko ekintzetan lan egiten du, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliz eta teknologia eta prozesu garbiak eta ingurumenaren aldetik arrazoizkoak ezartzea sustatuz.

Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzaren bultzatzailea den eta lhuberen eta Euskaliten laguntza duen Arabako Foru Aldundiak ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokiak aintzatesteko sarietarako deia egiten du.

Deialdi honen helburua da prozesu eta produktu berriak diseinatzeko enpresa prozesuan, berezko ekonomia eta kalitate aldagaiez gain ingurumen aldagaiak ere kontuan hartu beharra nabarmentzea. Prozesu eta produktu horien ingurumen arloko hobekuntza bultzatu nahi da haien bizi zikloan zehar, eta hori ezinbestekoa da jasangarri izan nahi duten enpresek dituzten erronkei aurre egiteko.

Deialdi hau Diputatu Nagusiaren Sailak eman beharreko sariak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituen ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena. Sariak eta aitortpenak

Irabazle aukeratzen den proiektuarentzat izango da lehenengo saria, 5.000,00 euroz hornitua. Halaber, bigarren eta hirugarren sariak emango dira, 3.000,00 eta 2.000,00 eurokoak, hautatutako bigarren eta hirugarren proiektuetarako.

Aurkezten diren gizarte berrikuntzako proiektu guztiei, gainera, aintzatespena eta ikusgai-tasuna emango zaie, sariak emango dituen erakundeak sustatuta. Haiei buruzko informazioa zabalduko da Arabako Foru Aldundiaren web orriaren bidez, aurrez zabalkunde horretarako baimena ematen badute hautagai diren erakundeei.

Finalista hautatutako hiru erakundeei gonbit egingo zaie ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien berri emateko jardunaldi batean parte hartzeko. Era berean, erakunde irabazleren baten instalazioetara ate irekien bisita bat egitea proposatuko da, Kudeaketa Aurreratuaren Europako 30. Astearen barruan (2024ko urriaren 14tik 25era), berriz ere bertatik bertara azaltzeko zer den jardunbide egokia.

Hirugarrena. Hautagaiak

Saria lortzeko aukera izango dute edozein sektore ekonomikotan jarduten duten, nortasun juridikoa duten eta bizilekua, egoitza soziala edo egoitza Arabako Lurralde Historikoan irekita duten erakundeek. Ezin dute parte hartu sektore publikoko erakundeek.

Laugarrena. Saria jaso dezaketen ekimenak eta proiektuak

1. Lurralde mugaketari dagokionez, ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietara aurkeztu ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoan abian jarritako proiektuak, beste eskualde batzuetan ere inpaktu soziala izanagatik.

2. Helburuari eta emaitzei dagokienez, sariak jaso ahal izango dituzte Arabako Lurralde Historikoko lurraldeko hainbat eragilek planetarekiko errespetuzko oparotasunerako egiten dituzten ekimen eta proiektu berritzaileek.

Enpresek eta beste entitate batzuek iraunkorrakoak izateko egiten dituzten ekintzak saritu ahal dira, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliz eta teknologia eta prozesu industrial garbiak eta ingurumenaren aldetik arrazoizkoak hartzea sustatuz. Prozesu eta produktu industrialak diseinatzeke prozesuan ingurumen aldagaiak kontuan hartzen dituzten jardunak baloratuko dira, bai eta aldagai ekonomikoak eta kalitate aldagaiak ere. Prozesuen eta produktuen bizi ziklo osoko ingurumen hobekuntza ebaluatuko da.

3. Aitorpen honen irismen esparruko jardunbide egokien adibide gisa, jarduteko aukeretako batzuk aipatuko ditugu jarraian:

- Ekonomia zirkularrekin lotutako negozio eredu berriak.
- Berriz sartzeko materialak produkzio zikloetan.
- Karbono aztarnaren kalkulua, murrizketa eta konpentsazioa.
- Materialen zirkulartasuna eta balorizazioa, hondakinen murrizketa.
- Produktuen bizi zikloa (BZA) eta ingurumen inpaktua murrizteko ekodiseinua.
- Bizi zikloa (BZA) eta ingurumen sentsibilizazioa.
- BZAREN integrazioa kudeaketa sistemetan eta erakundearen estrategian.
- Ekodiseinua eta material batzuen ordez ingurumen inpaktu txikiagoko materialak jartzea, lehengaiak murriztea, energia eta ur baliabideak optimizatzea.
- Produktuaren ingurumen aitorpenak (EPD) eta Europako etiketa ekologikoa lortzea.
- Teknologia berri garbiak eta inpaktu txikikoak erabiltzea.
- ISO 14006 kudeaketa sistemak inplementatzea.
- Inpaktu baxuko jardunak, erakundearen lehiakortasunean hobekuntzak dakartzatenak (merkatu berriak, nazioartekotzea...).
- Merkataritzan arrakasta duten produktuak garatzea teknologia garbien bidez.
- Inpaktu baxuko ontzi eta bilgarrien berrikuntza eta egokitzapena.
- Industrializazio jasangarria, hornitzaileen eta beste interes talde batzuen trakzioarekin.

- Hazkunde jasangarria eta pertsonengan edo gizartean duen inpaktua.
- Teknologia berriak eta digitalizazioa eskuratzea ingurumen inpaktuak murrizteko.
- Energia berriztagarriko sistemak ezartzea.

4. Generoa, berdintasuna eta jasangarritasuna zeharka txertatzeari dagokionez, proiektu guztiek sustatu beharko dute genero berdintasuna, eta saihestu edozein eratako tratu desberdintasuna eta diskriminazioa. Halaber, proiektuak sendoak eta bideragarriak izan behar dira, eta eskalagarriak, gizartean inpaktu handiagoa lortzeko, eta plan bat izan behar dute epe luzera jasangarritasuna lortzeko.

Bosgarrena. Hautagaitzak aurkeztea

1. Proiektuari eta hautagai den erakunde juridikoari buruzko informazioa. Sarirako hautagaitza aurkeztu ahal izateko, eranskin gisa doan inprimakia aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, honako informazio honekin:

A) Erakunde eskatzailearen deskribapena:

- Erakundearen izena.
- Posta helbidea.
- Harremanetarako pertsona.
- Harremanetarako telefonoa.
- Harremanetarako helbide elektronikoa.
- Erakundearen deskribapena.
- Langile kopurua.

• Baimena ekitaldiaren egunaren aurkezpena bidez grabatzeko eta hura zabaltzeko, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren komunikazio kanalen bidez.

B) Ekonomia zirkularreko, Industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokiaren deskribapena:

- Jardunbide egokiaren laburpena.
- Abiapuntuko egoera aztertzekeo prozesuaren deskribapena.
- Hautemandako premia oinarri hartutako helburuak.
- Behin betiko ezarpenerako hedapen prozesua.
- Mugarri esanguratsuen eta inbertsioen xehetasuna, baliabide teknikoei eta giza baliabideei dagokienez.
- Aurkitutako zailtasunak eta aplikatutako konponbideak azaltzea, bai eta, hala badagokio, hura gauzatzeko beharrezkoak izan diren lankidetzak ere.

– Honako hauei buruzko informazioa: arintasuna, originaltasuna eta negozio aukeraren be-reizketa; berrikuntza enpresaren jardura sektorean, eta merkatuak dibertsifikatzea eta zabaltzea.

C) Ekimenaren emaitzak eta inpaktua:

- Lortu diren emaitzak zehaztuko dira, hau da, azaldu beharko da zergatik den “jardunbide egokia” eta zer ekarpen egin dion erakundeari.
- Proiektuaren berrikuntza, transferigarritasuna, iraunkortasuna eta etorkizuna epe ertain eta luzera.
- Datuak, zifrak, bilakaera adierazleak eta aurkeztutako jardunbide egokiaren eta deskribatutako emaitzen arteko zuzeneko lotura frogatzen duen beste edozein informazio sartzea baloratuko da.
- Proiektua baloratzeko garrantzitsua den informazio gehiago.

Informazio horri material gehigarria erantsi ahal izango zaio, euskarri informatikoan edo ikus-entzunezkoan, erakundearen ekintzak erakusteko. Jardunbide egokia hobeto ulertzeko egokitzat jotzen diren grafikoak, irudiak edo bideoetarako estekak erantsi ahal izango dira.

“Jardunbide egokiaren deskribapena” ahal dela “arial 10” letraz idatziko da, eta gehienez ere 5 orrialde izango ditu. “Ekimenaren emaitzak eta inpaktuak” deskribatuko dira, gehienez ere beste 5 orrialde dituzten eranskinekin. Ez da ebaluatuko betekizun hori gainditzen duten orrialdeetan jasotako informazioa.

2. Hizkuntza. Eskatutako informazioa eta atxikitako materiala euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

3. Epea. Eskaerak aurkezteko hamabost egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

4. Hautagaitzak zein helbidetan aurkeztu.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (Erregistro Elektronikoa Komuna: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez, telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Seigarrena. Hautaketa irizpideak

Ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egoki bakoitza baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Deialdiaren xedera egokitzea: zenbateraino betetzen den industrializazio jasangarriko, energia garbietako eta ekodiseinuko jardunbide egokia izatearen eskakizuna, eta ingurumen erroka bat konpontzen lagun dezaketen ideia berritzaileak eta jasangarriak planteatzea.

2. Berrikuntza maila: proposamenaren berritasuna eta disrupzioa, jardunbide egokiaren balio bereizgarri gisa, gainerako erantzunetik. Egungo irtenbideak nola hobetzen, berrasmutzen, osatzen edo eraldatzen diren aztertzea, haiek eraldatzeko eta eraginkorragoak, jasangarriagoak eta efizienteagoak egiteko.

3. Jardunbide egokiaren inpaktua: proposatutako ekimenetik abiatuta, jardunbide egokiari aurre egin nahi dion errokkaren, proposatutako jardueren eta epe labur, ertain eta luzera espero diren emaitzen arteko lotura argia. Proiektuaren inpaktua emandako datuen, zifren eta bilakaera adierazlearen arabera ebaluatuko da.

4. Monitorizazioa eta ebaluazioa: Espero diren emaitzak eta ekimenaren inpaktuak balidatzeko erabilitako sistemak eta tresnak, aipatutako helburuei eta hautemandako premiei dagokienez.

5. Jardunbide egokia beste erakunde batzuetara orokortzeko ahalmena: ekimena eskualdatzeko eta testuinguru desberdinetara egokitzeko erraztasuna.

6. Estrategiarekiko koherentzia eta kudeaketarekiko integrazioa: proiektuaren bideragarritasuna ikuspegi teknikoa, ekonomikoa eta antolakuntzakoa oinarri hartuta. Diru sarrerak sortzeko eredu finantzatzea, emaitzak modu jarraituan lortzeko. Taldeak proiektuaren errokkari aurre egiteko duen gaitasuna eta esperientzia.

7. Garapen jasangarriko aldagaiak eta helburuak zeharka txertatzea, bereziki GJHko 9. helburua (Industria, berrikuntza eta azpiegitura).

8. Baloratuko diren beste irizpide batzuk:

- Kalitate teknikoa, argitasuna eta zehaztasuna aurkeztutako dokumentazioan.
- Ekimenaren aurrekariak eta erakundeak lortutako emaitzak biltzen dituen dokumentazioa.
- Teknologien erabilera berritzailea, proiektua nabarmen hobetzeko bitarteko gisa.
- Ekonomia zirkularra, industrializazio jasangarria, energia garbiak ezartzea eta ekodiseinua garatzearekin lotutako beste edozein neurri.

Zazpigarrena. Epaimahaia, erabakia eta sarien jakinarazpena

Izendapena eta osaera: Epaimahai kalifikatzailea Diputatu Nagusien Sailak izendatuko du, eta Arabako Foru Aldundiko langileek eta Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren GJHko 9. helburuaren lantaldeak osatuko dute, eta lhoberen laguntza teknikoa izango du.

Epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, bat etorritik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.2 artikuluan xedatutakoarekin.

2. Eskumenak: Epaimahaiak izango du hautagaitzak baloratzeko eta sariei buruzko epaia emateko eskumena. Erabakia diputatu nagusiari helaraziko dio, eta hark emango du ebazpena, zeina ALHAOn argitaratuko baita.

3. Epaia emateko, sariak esleitzeko eta jakinarazteko prozedura:

Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu. Erabakia epaimahaiakideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena. Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Hautatutako pertsona juridikoen hamar egun baliouduneko epea izango dute honako baldintza hauen egiaztagiriak aurkezteko:

- Eskatzailearen nortasuna.
- Erakundearen nortasun juridikoa eta ordezkatzeko ahalmena.
- Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea edo egoitza irekita izatea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, hori egiaztatetik salbuetsita egon ezean, 18/1997 Foru Dekretuaren arabera.

Baldin aipatutako epean ez bada aurkezten eskatutako dokumentazioa edo ez badira betetzen eskatutako betekizunak, epaimahaiak beste proiektu bat hautatu ahal izango du edo, egoki bada, saria eman gabe utzi.

Deialdi honetako sariak nori eman behar zaizkion Diputatu nagusiak ebartziko du foru dekretuaren bidez, epaimahaiaren arrazoitutako proposamena ikusirik. Foru dekretu horrek amaiera emango dio administrazio bideari.

Sarituek jasotako sariaren publizitatea egin ahalko dute, baina berariaz adierazi behar dute zein urteri dagokion. Era berean, saria jaso duten pertsonen baimena ematen dute deialdi honi loturiko edozein zabalkunde jardueratan beraiek direla egileak aipatzeko, baina horrek ez die ekarriko inolako eskubide ekonomikorik edo bestelako onurarik, ematen den sariak berekin dakartzen zenbateko ekonomikoaz eta aintzatespenaz bestelakorik.

Zortzigarrena. Deialdi honen publizitatea


Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, bai eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere, eta ahal dena egingo da hedabide sozialetan zabalkunderik handiena izan dezan.

Bederatzigarrena. Eskumena

Deialdian sortzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Diputatu nagusiaren Sailarena da, eta eskumen eskusiboa da, gainera.

Hamargarrena. Araubide aplikagarria

Xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, azaroaren 17koa 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua,ategarria den heinean; Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; Indarrean dagoen aurrekontua betearazteko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Gizonen eta Emakumeen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onesten duena; eta aplikatzeko den gainerako araudia.

	ERANSKINA
	EKONOMIA ZIRKULARREAN, INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIAREN, ENERGIA GARBIEN ETA EKODISEINUAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2024 ANEXO
	PREMIOS A LAS BUENAS PRÁCTICAS EN ECONOMÍA CIRCULAR, INDUSTRIALIZACIÓN SOSTENIBLE, ENERGÍAS LIMPIAS Y ECODISEÑO

ERANSKINA ■ ANEXO

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social		IKZ identifikazio zk. ■ Nº identificativo CIF				
<input type="text"/>		<input type="text"/>				
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.		
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico				
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>				

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOARI LOTUTAKO HARREMANETARAKO DATUAK
DATOS DE CONTACTO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN ELECTRÓNICA

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailleek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzailleek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.


Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico	Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil
<input type="text"/>	<input type="text"/>

HARREMANETARAKO PERTSONA / PERSONA DE CONTACTO: _____

Orria ■ Hoja 1/4

	ERANSKINA
	EKONOMIA ZIRKULARREAN, INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIAREN, ENERGIA GARBIEEN ETA EKODISEINUAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2024 ANEXO
	PREMIOS A LAS BUENAS PRÁCTICAS EN ECONOMÍA CIRCULAR, INDUSTRIALIZACIÓN SOSTENIBLE, ENERGÍAS LIMPIAS Y ECODISEÑO

ERANSKINA ■ ANEXO

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL
(Persona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ Nº identificativo		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	<input type="checkbox"/> Ez bitarra No binario
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre		Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Telefonia ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		

ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ■ DESCRIPCIÓN DE LA ORGANIZACIÓN

--


EMPLEGATUEN KOPURUA ■ NUMERO DE PERSONAS EMPLEADAS

--

PROIEKTUA (Aurkeztutako proiektuaren laburpen laburra. Eskaerarekin batera, proiektua azaltzen duen memoria zabalagoa aurkeztu ahal izango da, bai eta proiektua baloratzeko egoki irizitako dokumentazio guztia ere.)**■ PROYECTO (Breve resumen del proyecto presentado. La solicitud podrá acompañarse de una memoria más amplia explicativa del proyecto y de cuanta documentación se crea oportuna para la valoración del mismo).**

--

Orria ■ Hoja 2/4

 Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

ERANSKINA
EKONOMIA ZIRKULARREAN, INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIAREN, ENERGIA GARBIEN ETA EKODISEINUAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK
2024
ANEXO
PREMIOS A LAS BUENAS PRÁCTICAS EN ECONOMÍA CIRCULAR, INDUSTRIALIZACIÓN SOSTENIBLE, ENERGÍAS LIMPIAS Y ECODISEÑO

ERANSKINA ■ ANEXO

JARDUERA HAU FINALISTA EDO IRABAZLEA BADA, EKITALDIAREN EGUNEKO AURKEZPENA BIDEOZ GRABATZEA ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO ARABAKO ALIANTZAREN KOMUNIKAZIO-KANALEN BIDEZ ZABALTZEA ONARTUKO DUGU. ■ EN CASO DE QUE ESTA PRÁCTICA SEA FINALISTA O GANADORA, ACCEDEMOS A QUE LA PRESENTACIÓN DEL DÍA DEL ACTO SEA GRABADA EN VIDEO Y SE DIFUNDA A TRAVÉS DE LOS CANALES DE COMUNICACIÓN DE LA ALIANZA ALAVESA POR EL DESARROLLO SOSTENIBLE .

Ez/No Bai/Si

INDUSTRIALIZAZIO JASANGARRIAREN, ENERGIA GARBIEN ETA EKODISEINUAREN JARDUNBIDE EGOKIAREN DESKRIBAPENA. ■ DESCRIPCIÓN DE LA BUENA PRÁCTICA EN ECONOMÍA CIRCULAR, INDUSTRIALIZACIÓN SOSTENIBLE, ENERGÍAS LIMPIAS Y ECODISEÑO.


[Empty box for description of the good practice]

EKIMENAREN EMAITZAK ETA ERAGINA ■ RESULTADOS E IMPACTO DE LA INICIATIVA

[Empty box for results and impact of the initiative]

Orria ■ Hoja 3/4

ERANSKINA
EKONOMIA ZIRKULARREAN, INDUSTRIALIZAZIO
JASANGARRIAREN, ENERGIA GARBIEEN ETA
EKODISEINUAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK
2024
ANEXO
PREMIOS A LAS BUENAS PRÁCTICAS EN ECONOMÍA
CIRCULAR, INDUSTRIALIZACIÓN SOSTENIBLE, ENERGÍAS
LIMPIAS Y ECODISEÑO



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

ERANSKINA ■ ANEXO

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN/DECLARACIÓN RESPONSABLE

Deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditudala deklaratu dut, eta, aurkeztutako proiektua saritua izanez gero, baimena ematen diot Arabako Foru Aldundiari ofizioz egiaztatze ordezkatzen dudana erakundearen nortasuna eta, hala badagokio, nortasun juridikoa, ordezkaritza-ahalordea, erroldatzea, egoitza soziala edo egoitza irekia, bai eta zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze ere.

Era berean, baimena ematen diot erakunde emaileari, aurkeztutako Industrializazio jasangarriaren, energia garbien eta ekodiseinuaren arloko proiektuaren berri zabaltzeko, erakunde horrek sustatuko dituen aintzatespena eta ikusgarritasuna izan ditzan proiektuak, zeina Arabako Foru Aldundiaren webgunearen bidez zabalduko baitu.

Declaro que cumplo los requisitos exigidos en la convocatoria y, en caso de que el proyecto presentado resulte premiado, autorizo a la Diputación Foral de Álava a comprobar de oficio el requisito de mi identidad y, en su caso, personalidad jurídica de la entidad a la que represento, poder de representación, empadronamiento, domicilio social o sede abierta, así como a la comprobación del cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias y, en su caso, con la Seguridad Social.

Asimismo, autorizo a la entidad otorgante a la difusión del proyecto de "Buenas prácticas en economía circular, industrialización sostenible, energías limpias y ecodiseño" presentado para disfrutar del reconocimiento y visibilidad que promoverá dicha entidad y que divulgará a través de la página web de la Diputación Foral de Álava.

ESKATZEN DU/SOLICITA

2024eko Industrializazio jasangarriaren, energia garbien eta ekodiseinuaren arloko jardunbide egokien Sarien deialdian parte hartzea. /La participación en la convocatoria de premios a las "Buenas Prácticas en economía circular, industrialización sostenible, energías limpias y ecodiseño" 2024.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Ordezkararen sinadura ■ Firma del/la representante

Oharra (1)
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T70 SUBVENCIONES DEL DIPUTADO GENERAL fitxategian edo Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailean onartzen den baliokidean sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira. Zure datuen konfidentziasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkartzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero:
<https://web.araba.eus/es/web/araba/aviso-legal-ampliado>

Nota (1)
Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T70 SUBVENCIONES DEL DIPUTADO GENERAL o en equivalente que se apruebe en el Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:
<https://web.araba.eus/es/web/araba/aviso-legal-ampliado>

Orria ■ Hoja 4/4